

IKASTETXE PUBLIKOETAKO  
LANGILEENGANAKO  
ERASO KASUETAN  
**JARDUTEKO GIDA**



# IKASTETXE PUBLIKOETAKO LANGILEENGANAKO ERASO KASUETAN JARDUTEKO GIDA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA  
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Ikastetxe** publikoetako langileenganako eraso kasuetan jarduteko gida / [egilea, Hezkuntza Ikuskaritza]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

p. ; cm.

Port. y texto contrapuesto en castellano: Guía de actuación en casos de agresión al personal de los centros educativos públicos

ISBN 978-84-457-2578-8

1. Acoso moral en la escuela. 2. Violencia en la escuela. I. Euskadi. Inspección Educativa. II. Título (castellano).

364.271-057.87

37.06

Argitaraldia: 1.a 2007ko maiatzean

Ale-kopurua: 3.000 ale

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jauriaritza

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Hezkuntza Ikuskaritza

Azalaren diseinua: Mass-Color®

Diseinu grafikoa eta muntaia: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa: Artes Gráficas ELKAR S.Coop.

ISBN: 978-84-457-2578-8

Lege-gordailua: BI-1776-07

<b>SARRERA</b> .....	7
<b>ERASO KASUETAN JARDUTEKO ESPARRUA</b> .....	11
1. Arauak aldatzeko neurriak .....	11
2. Prebentzio-neurriak .....	11
2.1. Profesionalen gaikuntza eta eskumenak. Prestakuntza Plana .....	11
2.2. Azpiegiturak eta higiezinak egokitzea. Zentroen diseinua .....	12
3. Koordinazio eta Komunikazio Plana .....	13
4. Ebaluazioa eta jarraipena: Arrisku Mapa .....	13
5. Oinarrizko alderdi juridikoak .....	14
<b>ERASO KASUETAKO JARDUERA PROTOKOLOA</b> .....	17
1. Erasotako profesionalaren eta zentroko zuzendaritzaren jardunbideak .....	17
1.1 Erasotako profesionalaren jardunbideak .....	17
1. urratsa: Eraso-egoera. Laguntza eskatzea .....	17
2. urratsa: Ertzaintzari jakinaraztea lehenbailehen .....	17
3. urratsa: Medikuntza Anbulatorioaren Zerbitzura edo Larrialdietara joatea ...	18
4. urratsa: Zentroko zuzendaritzari gertakariaren berri ematea ofizialki .....	18
5. urratsa: Organo eskudunaren aurrean salaketa jartzea .....	18
1.2 Zentroko zuzendaritzaren jardura .....	18
6. urratsa: Laguntza psikologikoa eskaintzea .....	18
7. urratsa: Aholkularitza juridikoa eskaintzea .....	19
8. urratsa: OOGren deialdia. Erabakiak hartu eta neurriak ezartzea. ....	19
9. urratsa: Zentroko zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari txostena igortzea .	19
10. urratsa: Erasotako profesionalari laguntzeko neurri administratiboak .....	19
2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardura .....	20
3. Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuaren jardura .....	20
4. Lurralde-ordezkararen jarduna .....	21
5. Erasotzailearekiko hartu beharreko neurriak .....	21
<b>ERANSKINAK</b> .....	23
1. I. eranskina. Eraso-kasuetako Jarduera Protokoloaren laburpen-taula .....	24
2. II. eranskina. Fluxu-diagrama .....	26
3. III. eranskina. Erasotako Profesionalaren Partea .....	28
4. IV. eranskina. Zentroko zuzendaritzaren txostena erasoaren nondik norakoari buruz .....	30
5. V. eranskina. Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena .....	34
6. VI. eranskina. Laguntza eta neurri administratiboaren eskaera .....	37
7. VII. eranskina. Erreferentziako araudi penala .....	38

EAEko ikastetxeetan, BIZIKIDETZA oinarri-oinarrizko elementua da, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen oinarri, bai gure etorkizuneko herritarren prestakuntza integralaren oinarri ere. Horren adierazgarri, gure ikastetxeetan gerta daitekeen edonolako indarkeria-jokabideren aurrean ZERO TOLERANTZIAren alde egin eta lehen urratsa ere eman dugu: 2004/05 ikasturtean abiara-zitako IKASTETXEETAN BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRAK GERTATZEN DIRENEAN JARDUTEKO GIDA. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakin badaki jokabide oldarkorrek ikasleen artean gertatzeaz gain, irakasleekikoak eta ikastetxeetan lan egiten dutenekikoak ere izaten direla.

XXI. mende honetan, eskola-bizitzaren garapenaren eremuan, gerta daiteke zenbait kasutan oldarkortasun-egoerak sortzea hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen arteko harremanetan, eta horiek eskola-komunitateko sektoreen arteko harremanak erasaten dituzte. Fenomeno hori ez da hezkuntza-eremuan soilik gertatzen, eta gainera, faktore anitzeko arazoa denez, oso zaila da arazo horren prebentziorako eta kontrolerako erantzun bakarria ematea.

Oldarkortasun- eta indarkeria-egoerak orokortu egin dira ondasun- eta ekipo-enpresetatik zerbitzu-sektoreko erakunde publiko eta pribatuetara, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostenetan ageri denari jarraiki, hain justu sektore horrekin loturiko lanbideek dute indarkeria-egoerak edo erasoak jasateko arrisku handiena, erabiltzaileekin eta bezeroekin zuzeneko harremana dutelako.

Azken urteotan, herrialde industrializatu guztietan, indarkeria-ekintzak areagotu egin dira ikastetxean bertan profesionalen aurka ikasleen aldetik, ikasleen senitartekoen eta lagunen aldetik eta ikastetxearekin lotura zuzenik ez duen kanpoko jendearen aldetik, eta buruhauste handia izatera iritsi da ikastetxetan lan egiten duten profesionalentzat, eta horren ondorioz, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sail honentzat ere; hala ere, oraingoz Euskadin ez dira kasu asko gertatu.

Lantokiko indarkeriak langileen eskubideak eta duintasuna urratzen ditu, baina horretaz gain, erakundearen eraginkortasunerako eta arrakastarako mehatxu ere bada. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak argitaratu duenez, horren guztiaren eraginez langileek hainbat ondorio jasaten dituzte, eraso motaren eta biktima bakoitzaren ezaugarri pertsonalen arabera. Hori horrela izanik, lanarekin gustura ez egotea eta motibazioa galtzea eragin ditzake, baita estresa edo kalte fisiko edo psikologikoak ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ustez, sakondu egin behar da herritarrari, bere eskubideak gauzatzean, zor zaion errespetuan, eskubide horiek Zuzenbide Estatuak babesten dituen eremu guztietan. Baina aldi berean, herritarrari eskatu behar dio goiko eskubide horiek dakartzaten betebeharrak ere bete ditzan. Betebehar horietako bat da hezkuntza-zerbitzuak behar bezala baliatzea, elkarrekiko zintzotasunez, konfiantzaz eta errespetuz.

Hainbat azterlanen emaitzei jarraiki, profesional askok uste du lantokiko erasoek modu negatiboa eragin dezaketela hezkuntza-praktikaren kalitatean, honako ondorio hauek izan baititzakete:

profesionalek defentsa-jarrerak hartzea, ikasleek edo haien senitartekoeak egin ditzaketen lekuz kanpoko eskaerak onartzea, edo ikasle liskartienei eskainitako denbora murriztea. Banakako eremuan, eraso-egoera horiek pairatu behar dituztenek eragin emozional handia izan dezakete.

Azterlan horien arabera, lantokiko indarkeriaren aurkako jarduerak lehentasun handiko gaitzat hartu behar ditu hezkuntza-agintaritzak, eta guk halaxe egin dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean. Hala ere, honako hau onartu beharrean gaude: ikastetxeetako irakasleen eta/edo edozein langileren aurkako indarkeriari aurre hartu eta aurre egiteko hezkuntza-sistematik ezar daitezkeen neurrien bitartez gertakari horien intentsitatea eta ondorioak arindu eta egoeren eragina murriztea lor daiteke, baina ez indarkeria hori desagerraraztea, gizarte- eta kulturarloko zenbait faktoreekin loturik baitago, eta faktore horiei aurre egitea hezkuntza-eremutik soilik zaila da.

Abiaraziko ditugun neurriak lau ardatzen arabera egituratzen dira:

- a) **ARAUAK ALDATZEKO NEURRIAK**, EAeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei dagokien Dekretua egungo errealitatera egokitze aldera.
- b) **PREBENTZIO NEURRIAK**, profesionalei komunikazio-trebetasunak eskaintze aldera, horiek ikasleekin eta haien familiekin duten elkarreragina hobeto dezaten.
- c) **ERASOTZAILAEN AURKAKO EKINTZAK**, hala nola: potentzialki oldarkorrak izan daitezkeen ikasleei eta senitartekoei jarraipena egitea; epaitegian salaketa jartzea; jokabide irregularren berri ematea hezkuntza-komunitateari, eta komunitate horren babesa eskatzea zentroetako ordezkari-organoren bitartez.
- d) **GERTAKARIEN AURREAN BURUTU BEHARREKO JARDUERAK**, eraso-egoeraren bat jasanez gero, langileek zer egin dezaketen modu esplizituan ezartze aldera.

Hona hemen Jarduteko Gida honetako jarduerak osatu eta egituratzen dituzten oinarrizko printzipioak:

**Izaera integrala.** Irakaskuntzako profesionalen aurkako erasoengatik jarduerak izaera integrala izan behar dute eta, prebentzioko neurriak ez ezik, horrelako egoeren aurrean jarduteko, eta ondoren azterketak zein ebaluazioak egiteko neurriak ere hartu behar dituzte barnean. Lanbide-kategoria gorabehera, irakaskuntzako profesional orori zuzendutakoak izan behar dute, eta Ertzaintzaren jarduerekin koordinatzea edo hezkuntzaren arlo ez besteko administrazioekin lankidetzan aritzea lortu behar da.

**Koordinazioa.** Diseinatutako neurrien berehalako eraginkortasunak jarduera guztien koordinazio zehatza eskatzen du, batik bat, hain konplexua den hezkuntzaren sektorean.

Profesionalentzako orientazio-zerbitzua. Indarkeriazko gertakari baten aurrean, gertakari horretako subjektu pasiboaren (irakasle izan ala ez, irakaskuntza-zentro bateko edozein langileren) zerbitzura bideratu dira diseinaturiko jarduerak guztiak, eta subjektu horrek honako hauen babesa sumatu behar du une oro: ikastetxearena, eskola-komunitatearena, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzarena, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sail osoarena ere, behar duen orientazioa, aholkularitza eta asistentzia jasota.

**Azpiegiturak eta lan-prozedurak egokitzea.** Lanaren eta lanerako azpiegituren antolamendua segurtasuneko eremuak sortzeko lagungarri izango da, hezkuntza-jarduerak behar bezala garatze aldera.

**Etengabeko hobekuntza.** Etengabeko ebaluazio-prozesuari esker, erasoak gertatzen diren tokiaren, garaiaren eta moduaren inguruko xehetasunak jaso ahal izango dira, arrisku-mapa bat eginda, horrelako egoerekin loturiko aldagaiak zehaztuta, etorkizunean erabakiak hartzea erraztuta, eta neurri eraginkorragoak definituta.

**Ikasleen eskubideak errespetatzea.** Irakasle/ikaslearen eta familiaren arteko harremanak elkarren arteko errespetuan eta konfiantzan oinarritu behar du; ideia hori abiapuntu izanik, profesionalen segurtasunerako prebentzio- eta ekintza-plan guztietan harreman hori babestu behar da berme guztiekin, eta kasu guztietan ikasleen eta haien familien eskubideak errespetatu behar dira, honako hau gerta ez dadin: proposaturiko ekintzen bitartez irakasleen eskubideak ikasleen edo haien senitartekoen eskubideei gailentzea. Gertatutako gertakarien gaineko objektibitateak eta proposaturiko neurriek printzipio horri jarraitu behar diote.

**Irakasleen eta ikastetxeko gainerako profesionalen eskubideak errespetatu eta aintzat hartzea.** Honako ideia hau hartu dugu abiapuntu: ikastetxeetako profesionalak dira etorkizuneko herritar-belaunaldien prestakuntzaren eragile. Hortaz, profesional horien lana errespetatu eta aintzat hartzea ezinbestekoa da gure ikastetxeetako zereginaren oinarri sendoa izate aldera. Errespetu hori urratuz gero, gure prestakuntza-ereduaren oinarri den balio-sistema ahulduko da, pixkanaka-pixkanaka.

Hori dela-eta, Hezkuntza Ikuskaritzak landutako *Ikastetxe publikoetako langileenganako erasokasuetan jarduteko Gida* eskaintzen die Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxe guztiei, irakasleentzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat lagungarri izan dadin.

**JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS**

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 15a.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua





# IKASTETXE PUBLIKOETAKO LANGILEENGANAKO ERASO KASUETAN JARDUTEKO ESPARRUA

## 1. ARAUAK ALDATZEKO NEURRIAK

---

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta bete-beharrei dagokien apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuak (1994/06/09ko 109. EHAA) bete zuen ezarritako helburua, baina orain hezkuntza-premia berrietara egokitzen ari da; hortaz, egungo egoerara moldatutako dekretu berria izango du laster hezkuntza-komunitateak. Dekretu berri hori onartutakoan, gatazka-egoerei aurre egiteko garaian prebentzio-lana erraztuko duten hainbat antolaketa-eredu sartuko dira, bitartekotza-figura berriak barnean hartuta, eta batez ere, gatazkak judizializatzeko dakarren zama arinduta; halaber, egoera horiek bideratzeko tresna azkarrak eta eraginkorrak ere eskainiko zaizkie irakasleei eta zuzendaritza-taldeei.

## 2. PREBENTZIO NEURRIAK

---

Erasoen arazoari modu integralean aurre egiteko, lehentasunezkoa da irakaskuntzako profesional guztiei zuzendutako prestakuntza-prozesu espezifiko bat garatzea gatazka-egoeretan jokatzeko moduari buruz, arrisku-egoerei aurre egitea, estresa eraginkortasunez kudeatzea eta lan-eremua kontrolatzeko jarduerak gauzatzea ahalbidetzeko trebetasunak ikas ditzaten.

### 2.1. Profesionalen gaikuntza eta eskumenak. Prestakuntza Plana

Prestakuntza Planean honako hau guztia sartuko da:

- Batik bat eduki praktikoa izango duten lantegiak egitea.
- Ikastetxeetako profesionalei zuzendutako lantegiak izango dira. Zentro bakoitzak proposatuko du lantegi horiek antolatzea zentroan lan egiten duten langile guztientzat; beraz, lantegiak deszentralizatuak izango dira eta ikastetxe bakoitzaren problematika zehatzari egokituko zaizkio.
- Berritzegune-sarearekin batera, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak diseinatuko du ekintza horren esparru-eredua, eta horren ondoren, ikastetxeek egokitu egingo dituzte beren eskola-errealitatearen arabera.
- Ikastetxeekin lankidetzan, Berritzegune bakoitzak antolatuko ditu mota horretako lantegiak, prestakuntza-programetan lan-ildo horri lehentasuna emanez.

**Prestakuntza Plan** horrek honako **HELBURU** hauek izango ditu:

1. Irakaskuntzako profesionalek ikasleekin eta haien familiekin duten harremana aztertzea, gatazka- eta eraso-egoeratan.
2. Profesionalek garatu beharreko hobetze-estrategiak eztabaidatzea, egoera horietan erantzun egokia emateko gai izan daitezzen.
3. Irakaskuntza/ikaskuntza harremanean oinarritzko trebetasun jakin batzuetan trebatzea, egoera horietan arreta eraginkorragoa lortze aldera.
4. Ikastetxeetan garatutako praktika onak baliatzea.

Hori guztia lortzeko honako **EDUKI** hauek proposatu dira:

1. Komunikazioaren oinarritzko printzipioak egoera zailetan.
2. Komunikazioa errazten eta eragozten duten elementuak.
3. Asertibitatea: hainbat teknika.
4. Aktiboki entzutea.
5. Hizketaz kanpoko komunikazioa.
6. Negoziatzeko teknikak eta trebetasunak.
7. Autokontrol emozionala eta estresa maneiatzea.
8. Bitartekotza eta gatazkak konpontzea.

Ikasleekiko eta haien ingurunearekiko harremanetan sor daitezkeen egoera zailak aztertuko dira (*ikasle oldarkorrak hartzea, nola jokatu profesionalaren huts-egitearen aurrean, nola esan EZ, zer egin ikasle edo senitarteko oldarkor baten aurrean, nola egin kritika bat, nola jaso kritika bat, nola eman albiste txarrak...*).

## 2.2 Azpiegiturak eta higiezinak egokitzea. Zentroen diseinua

Ikastetxeetako azpiegituren banaketa eta antolamendua garai batean indarrean zegoen hezkuntza-legediaren eskakizunen arabera egin ziren, haiek planifikatu ziren garaikoaren arabera, alegia. Hala ere, gaur egun, eta gure gizartearen bilakaeraren ondorioz, ezinbestekoa da ikastetxeei hainbat baliabide eskaintzea, hasierako helburuari (irakaskuntzari) bere horretan eusteaz gain, konfiantza eta segurtasuna nagusi diren giroan hura garatzea ahalbidetzeko.

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuarekin koordinatuta, ikastetxe bakoitzak honako egiturazko neurri hauek ezartzeari ekin diezaion gomendatzen da, betiere jardun-eremuaren barruan eta modu mailakatuan:

- a. **SEGURTASUN PASIBOKO neurriak:** Egingo den Arrisku Mapa baten arabera ezarri beharreko segurtasun pasiboko neurriak argi eta garbi definituko dituzten gutxieneko estandarrak ezarriko dira.
- b. **SEGURTASUN AKTIBOKO neurriak:** Gerta daitezkeen erasoen aurrean asistentzia emateko garaian profesionalen segurtasuna ere aintzat hartu beharko da zentro berriak diseinatu eta eraikitzean, edo dauden zentroetan erreformak egitean.

### 3. KOORDINAZIO ETA KOMUNIKAZIO PLANA

---

Ikastetxe bateko profesional batek eraso jasaten badu, arduraz eta azkartasunez jardun behar da, jasandako kalteak ahalik eta gehien arindu eta kasuan kasuko neurri egokiak hartzeko. Horregatik, erasoarekin zerikusia duten eragileen eta erakundeen arteko Koordinazio eta Komunikazio Plan bat ezarri behar da. Plan horrek bi koordinazio-malla izango ditu:

1. **Barrukoa.** Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzaren berezko organoen bitartez.
2. **Loturikoa.** Jarduera Protokoloarekin lankidetzan ari diren erakundeentzat:
  - Arrisku Mapatik ateratako puntu kritikoei buruzko txostena egitea. Informazio hori Herrizaingo Sailera bidaliko da.
  - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sentsibilizazio-lana egingo du beste hainbat administrazioarekin, horrelako kasuetan azkar jarduteak duen garrantziaren inguruan.
  - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak besteak beste Ertzaintzaren koordinazioa eskatuko du.

### 4. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA: ARRISKU MAPA

---

Horrelako egoerek izaten duten bilakaeraren berri izate aldera, sistema bat ezarri behar da, honako hauek egitea ahalbidetzeko:

- Jakinarazitako erasoen nondik norakoak eta ezaugarriak (tokiari eta denborari dagokienez) ebaluatzea eta ezarri beharreko neurriak planifikatzea.
- Ikastetxeetako profesionalen aholkularitza eta babesa ematea.
- Erasotakoarekin harremanetan jarri eta Jarduera Protokoloan komunikatzeko zehaztutako bidea soilik baliatzeko konpromisoa hartzea, isilpekotasunari eustearren.
- Beste hainbat erakunde eta elkarterekin koordinatzea.
- Horrelako gertakarien bilakaerari buruzko txostenak egitea.
- Koordinazio eta Komunikazio Plana garatu eta gainbegiratzea.

Ikastetxe publikoetako langileekiko erasoen fenomeno aztertzea ahalbidetuko duen ahalik eta informazio gehien jasotzearen, datu-base bat dago; datu-base horretan erasoak jasotzen dira, baita kasu bakoitzaren ezaugarriak ere.

Datuak gerora aztertuta, ARRISKU MAPA bat osatu ahal izango da, ikastetxeetan horrelako jokatibide oldarkorren aurrean epe motzean jarduteko neurriak (prebentziokoak, leungarriak eta zuzentzaileak) diseinatzeko lagungarri. Hezkuntza Ikuskaritzak landutako datu-basea Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuarekin batera kudeatuko da, eta zerbitzu horren eginkizuna izango da erasotako profesionalarentzat Laguntza Psikologikorako eta Jarraipenerako Plana egitea eta kudeatzea. Halaber, aholkularitza emango die Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari eta Langilieriaren Kudeaketa Zuzendaritzari; lehenari Prestakuntza Plana egiteko garaian, eta bigarrenari, behar izanez gero, hartu beharreko neurri administratiboekin loturiko guztiari dagokionez.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garatutako jardueren eta horien emaitzen jarraipena egingo da gutxienez urtean behin, bai hezkuntzarekin zerikusia duten presentzia-, ordezkaritza- eta partaidetza-foroetan (OOGan eta Euskadiko Eskola Kontseiluan), bai Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan.

## 5. OINARRIZKO ALDERDI JURIDIKOAK

Atal honen helburu nagusia honako hau da: ikastetxeetako zuzendariei eta erasoak jasan ditzaketen profesionalei oinarrizko orientazio juridikoa eskaintzea, bai eraso balioesteko gai izan daitezkeen, bai kasu eta egoera bakoitzean abiaraz daitezkeen lege-ekintzen inguruan erabaki egokiak har ditzaten laguntzeko.

Ikastetxeetako langileak subjektu pasibo izan daitezkeen arau-hauste penal guztien katalogoa zehaztea oso zaila da, Zigor Kodeak askotariko ekintza kriminalak zigortzen baititu eta errealitatean askotariko kasuak gertatzen baitira.

Nolanahi ere, zehaztasun handiegitan sartu gabe, ikastetxeetan gehien gerta daitezkeen arau-hausteen zerrenda egingo dugu; hona hemen:

- Segurtasunaren aurkako delitu eta faltak: eraso fisikoak, lesioak eta egitezko tratu txarrak.
- Askatasunaren aurkako delitu eta faltak: mehatxuak eta behartzeak.
- Ohorearen aurkako delitu eta faltak: irainak eta laidoak.
- Ondarearen aurkako delitu eta faltak.

Ustezko delitu edo falta horien preskripzio-epea luzea denez, gertakarien hasierako balioespena egitea zaila den kasuetarako, aholkularitza juridikoa eskatzea gomendatzen da salaketa jarri aurretik. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskainiko du aholkularitza hori.

### a) Jurisdikzioa eta lege-ekintzak

Aztertzen ari garen arau-hausteak gauzatuz gero, bi ekintza mota egin daitezke; hortaz, zein jurisdikzioaren aurrean egikaritu behar diren zehaztu behar dugu:

- Ekintza Penala: erruduna zigortzea dakarren delitu edo falta gisa dago tipifikatuta arau-haustea Zigor Kodean, eta soilik jurisdikzio penalaren aurrean egikaritu daiteke.
- Ekintza Zibila: kalte-galerak izan diren kasuetan, gertakari zigorgarriak eragindako galerak ordaintzea, kalte konpontzea eta gauza itzultzea lortzeko helburua du. Lege-hauste kriminal batengatik abiatutako ekintza zibila ekintza penalarekin batera egikaritu daiteke, edo bestela, bereizita, jurisdikzio zibilaren aurrean.

Beraz, ikastetxeko irakasleek edo langileek lege-hauste penalen bat pairatzen badute eta horrek kalte-galerak eragiten baditu, erruduna zigortzeko ekintza penala ez ezik, ekintza zibila ere gauzatu daiteke dagokion kalte-ordaina eskatzeko, dela prozesu penalaren barruan, dela bereizita, jurisdikzio zibilaren aurrean, betiere kontuan izanik azken kasu horretan prozesu penala hasita baldin badago, ezin izango dela beste auzirik abiatu prozesu penal hura epai irmoaren bidez amaitzen den arte.

### b) Prozeduraren hasiera

Salaketa edo kereila bidez has daiteke.

- Salaketa: askoz arinago eta erosoagoa da, ez baitu eskatzen forma aldeko baldintza berezirik betetzea onartua izateko, eta idatziz nahiz ahoz formula dezake eraso izan den profesionalak berak edo horretarako legitimaturiko norbaitek, edozein jurisdikzio-organoren aurrean, ministerio fiskalaren aurrean, edo edozein polizia-bulegotan.

- Kereila: beti idatzita aurkeztu behar da dagokion jurisdikzio-organoren aurrean, eta hezkuntza-administrazioaren abokatuak edo, administrazioarekin loturarik izan gabe, erasotakoak izendatutako beste abokatu batek aurkez dezake; kasu horretan, abokatu-asistentziaren gastuak ez ditu Administrazioak ordainduko.

Horretaz gain, ikastetxeak eskatuta egindako ikerketen ondorioz polizia-funtzionarioek idatzitako atestatuen bitartez, ofiziozko jarduna has daiteke, erasotakoak edo horrek legitimaturiko norbaitek salaketa jarri ala ez jarri.

Salaketa edozein jurisdikzio-organoren aurrean jar daiteke, baina hobe da gertakariak gertatzen diren barruti judicialari dagokion guardiako epaitegian aurkeztea.

### **c) Jarduteko epea**

Delituaren edo faltaren preskripzioa gertatuz gero, erantzukizun penala irautsi egiten denez, preskripzio-epaia amaitu aurretik ekin behar zaio ekintza penalari. Funtsean, egindako delitu edo falta horrentzat lege ez ezarritako zigorraren iraupenaren arabera ezartzen dira preskripzio-epaia.

Oraingoz, irakasleek eta/edo ikastetxeetako langileek salatutako gertakari gehienak faltatzat hartu izan dira; beraz, etorkizunean preskripzio-arazorik ez izateko, kontuan izan behar da horrelako lege-hausteentzat Zigor Kodean ezarritako preskripzio-epaia 6 hilabete dela. Dena den, dagokion Aholkularitza Juridikoak gai prozesal horiek guztiak aintzat hartuko ditu.

### **d) Frogak aurkeztea**

Ez dugu ahaztu behar eremu penalean errugabetasun-presuntzioaren printzipioa indarrean dagoela; hortaz, presuntzio horri indarra kentzeko adina froga aurkeztu beharko lituzke salatzaileak epaiketan. Horretarako oso baliagarriak dira honako hauek:

- Lekukoen adierazpenak eta ikastetxeko kargudunen artean jasotakoak (zuzendaria, ikaske-taburua, idazkaria, tutoreak, eta abar, betiere kasua argitzeko lagungarri badira).
- Osasun-asistentziako parteak, eraso fisikoen kasuan. Erasokoak gertatzen diren kasu guztietan komeni izaten da mediku batek langilea lehenbailehen aztertzea.

VII. ERANSKINean informazio zehatzagoa emango dugu erreferentziako oinarriko araudiaren gainean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak honako konpromiso hau hartzen du, betiere bere eskumenen barruan: erasoen ondorioz sortutako egoerak eta tartean sartutako profesionalek eskatzen duten laguntza morala, administratiboa eta juridikoa emateko konpromisoa, eta aldeko epaia eman ostean, baita langilearen ohorea eta profesionaltasuna lehene-ratzeko konpromisoa ere, komunikabideetan egia argitzeko informazioa argitaratuta, betiere horretarako baimena izanik. Erasotzailea adingabea baldin bada, Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzko Legean xedaturikoa hartuko da kontuan.



# IKASTETXE PUBLIKOETAKO LANGILEENGANAKO ERASO KASUETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

Ahozkoa nahiz fisikoa izan, eraso-egoera baten aurrean jarraitu beharreko urratsak aurkeztuko ditugu jarraian, baina hala ere, laburpen-taulan (I. ERANSKINA) eta fluxu-diagraman (II. ERANSKINA) ere jasota daude.

Balitzo eraso gehienak ikastetxeetan gertatuko diren arren, gerta daiteke beste nonbait ere jazozea, hala nola profesionalen beste lantokiren batean, edo baita lan-eremutik kanpo ere. Azken kasu horretan ere protokoloa aplikatuko da, betiere eraso eragin duen arrazoia langilearen lanbide-garapenarekin loturik badago edo lotura hori ustez baldin badago.

Bestalde, erasotako profesionalaren intimitatearen eta isilpekotasunaren oinarritzko printzipioak babesteko asmoz garatuko da beti jardun-protokoloa.

## **1. ERASOTAKO PROFESIONALAREN ETA ZENTROKO ZUZENDARITZAREN JARDUNBIDEAK**

### **1.1. Erasotako profesionalaren jardunbideak**

#### **1. urratsa: Eraso-egoera. Laguntza eskatzea**

Eraso-egoera baten aurrean hobe da lasai egotea eta egoera hori saihesteko ahalegina egitea. Ahal izanez gero, erasotzaileari ikusarazi behar zaio portaera hori ez dela egokia eta ondorioak pairatu behar izango dituela. Muturreko kasuan, bidezko defentsa-bitartekoak soilik baliatuta erantzungo du, eta laguntza eskatuko. Indarkeria-egoera geldiarazteko eta/edo amaitzeko, kideen edo gertuko beste norbaiten presentzia eta laguntza beharrezkoak izango dira, eta gainera, behar izanez gero lekuko ere izan daitezke.

Ikastetxeetan gehien gertatzen diren arau-hauste motak honako hauek dira:

- Segurtasunaren aurkako delitu eta faltak: Eraso fisikoak, lesioak eta egitezko tratatu txarrak.
- Askatasunaren aurkako delitu eta faltak: Mehatxuak eta behartzeak.
- Ohorearen aurkako delitu eta faltak: irainak eta laidok.
- Ondarearen aurkako delitu eta faltak:

Indarkeria- edo eraso-egoerak jarraitu egiten badu, hurrengo puntura igaro behar da.

#### **2. urratsa: Ertzaintzari jakinaraztea lehenbailehen**

Lehen ere esan dugunez, erasotzailea konbentzitzen saiatuta ere, indarkeria- edo eraso-egoerak jarraitu egiten badu edo eraso larria gertatu bada, Ertzaintzari deitu eta lehenbailehen bertaratze-ko eskatuko zaio.

Agian poliziak esku hartu eta atestaturia egin beharko duenez, hobe da gertakariaren lekuan ezer ez ukitzea poliziaren jarduna amaitu bitartean edo poliziaren esku-hartzea ez dela behar erabaki artean.

### **3. urratsa: Medikuntza Anbulatorioaren Zerbitzura edo Larrialdietara joatea**

Erasotzaileak/ek indarkeria baliatzeagatik lesiorik egon daitekeenez, erasotako profesionala Medikuntza Anbulatorioaren Zerbitzura edo Larrialdi Zerbitzura joango da ahal dela, ikastetxeko zuzendaritza-taldeko norbaitez edo prest dagoen beste edozein lankidez lagunduta; han lesioen parte edo txostena eskatuko du, III. ERANSKINAREkin (Erasotako Profesionalaren Partearekin) batera aurkezteko.

### **4. urratsa: Zentroko zuzendaritzari gertakariaren berri ematea ofizialki**

Ahal bezain laster, eta erasotako profesionalaren gogo-aldarte onarenean, zentroko zuzendaritzari jakinarazi behar zaio gertakaria. Gertatutakoa ahoz ere komunika daiteke, gertatu eta berehala.

Erasoa frogatzeko moduan komunikatzearen, erasotako profesionalak III. ERANSKINA (Erasotako Profesionalaren Parte) baliatuko du, eta betetakoan, ikastetxeko zuzendaritzari igorriko dio. Eranskin hori on-line ere bete daiteke Hezkuntza Sailaren web orrian eta posta elektronikoz bidali. Hona hemen web orri hori: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

### **5. urratsa: Organo eskudunaren aurrean salaketa jartzea**

Erasotako profesionalak egin beharreko azkeneko urratsa salaketa jartzea izango da, hala egin behar duela uste badu, dagokion organoan, epaitegian, Ertzaintzaren aurrean, eta abar.

Ikastetxeko zuzendaritzak edo hezkuntza-administrazioak bestelako ekintza judizialak ere susta ditzake, eta ez dira profesionalak egindakoen baztertzailerik izango.

## **1.2. Zentroko Zuzendaritzaren jarduna**

Ikastetxe bateko arduradunak jakiten duenean bere zentroko profesional baten aurkako eraso-egoera gertatu dela, Erasotako Profesionalaren Parte (III. ERANSKINA) jaso behar du, eta lehen-lehenik, gertakaria balioetsi beharko du, larritasun-maila zehazteko. Gertakari horrek hezkuntza-eremua gainditzen badu, eta horren ondorioz eremu horretan indarrean dagoen araudiaren bitartez kasua bideratu ezin bada, jarraian zehazturiko urratsak emango dira.

### **6. urratsa: Laguntza psikologikoa eskaintzea**

Erasotako profesionalarekin kontaktuan jarri bezain laster, ikastetxeko zuzendaritzak laguntza psikologikoa jasotzeko aukera eskainiko dio. Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuaren profesionalak kudeatuko dute laguntza hori, eta erasotakoaren bilakaeraren jarraipena egingo dute.

Profesionalak eskaintza onartzen badu, VI. ERANSKINA (Laguntza eta neurri administratiboaren eskaera) bete beharko du.



## **7. urratsa: Aholkularitza juridikoa eskaintzea**

Aholkularitza juridikoa jasotzeko aukera eskainiko du zentroko zuzendaritzak; hasieran, dagokion Lurralde Ordezkaritzak eramango du aholkularitza hori. Salaketa jarri eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikora jotzen bada, Jaurlaritzaren Lehendakariordetza Sailaren Auzibide Zuzendaritzako abokatuen bitartez emango da abokatu-asistentzia.

Erasotakoak eskaintza onartzen badu VI. ERANSKINA (Laguntza eta neurri administratiboen eskaera) bete beharko du.

## **8. urratsa: OOGren deialdia. Erabakiak hartu eta neurriak ezartzea**

Eraso-egoera baten aurrean, zuzendariak OOGren premiazko bilera egiteko deialdia egingo du. Erasotzailea zentroko ikaslea baldin bada, diziplinako espedientea irekiko zaio. Erasotzaileak ez badira ikastetxeko ikasle (eta hortaz, ez daudenez ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko araudian xedaturikoaren eraginpean), gertakariaren nondik norakoaren eta larritasunaren arabera, zuzendariak askotariko jarduerak eskura ditzake organo honetatik: kargu-hartze idatzia erasotzaileei (senitartekoei, gertukoei edo bestelakoei); ikastetxearen instalazioetan sartzeko behin betiko edo aldi baterako debekua; gertakaria faltatzen edo delituztat jotzen bada, hura dagokion agintaritzari jakinarazteko, komunikazio-izapideari ekiteko errekerimendu idatzia; eta abar. Erasotzailea heldua denean ere balio du jarduera horrek.

OOGk balioetsiko du egokia ote den eraso gaitzesteko komunikatu bat kaleratzea, bertan gertatutako indarkeria-egoera salatuz eta erasotakoak jasan ahal izan dituen kalteengatik atsekabea agertuz. Horrelakorik egoki iritziz gero, komunikatu hori ikastetxeko langileei bidal dakieke, baita hezkuntza-komunitateko familiei ere.

Adingabeak eraginpean hartuta idazten diren komunikatu eta txosten guztietan, adingabeen nor-tasuna babesteari dagokionez 3/2005 Legean (haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoan, 2005-03-30eko EHAA) xedaturikoa hartuko da aintzat.

Komunikabideren batek gertakariari buruzko informazioa eskatzen badio zentroari edo tartean sartutako profesionali, eskaera hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Prentsa Kabinetera bideratzea gomendatzen da.

## **9. urratsa: Zentroko Zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari txostena igortzea**

Ikastetxeko zuzendariak txostena igorriko dio Hezkuntza Ikuskaritzari, IV. ERANSKINeko ereduari jarraiki. Horrek ez du esan nahi gertatutakoaren berri ez denik berehala eman behar, hezkuntza-maila guztietan Ikasturtea Antolatze Ebazpenenetan ezarritakoa betez.

## **10. urratsa: Erasotako profesionalari laguntzeko neurri administratiboak**

Prebentzio-ekintza moduan, eta erasotako langileak eskatuta, ikastetxeko zuzendariak zenbait ekimen proposatuko ditu erasotakoari babesa ematea ahalbidetzeko, haren segurtasuna eta lan-bide-jardueraren normalizazioa bermatuta. Hona hemen neurri horietako batzuk: epe jakin batean

beste zentro batean aritzea, zentro berean beste eginkizun batzuetan aritzea, eta abar. Ekimen horiekin, ahal den neurrian saihestuko dira, bai gatazka berriro eragin dezaketen egoerak, bai aldi baterako lanerako ezintasuna ere.

Horrelako neurriak hartzeko, Hezkuntza Ikuskaritzak eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak txostenak egin behar dituzte.

Erasotako profesionalak ez badu funtzionario- edo kontratu-loturarik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, baina bai beste administrazioen edo zerbitzu-enpresaren batekin (garraioa/jantokia), eta gertakariak larriak izanik, komeni bada profesionala beste lanposturen batera aldatzea, betiere interesdunak hala eskatuta, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak bideratuko du aldatze-eskaera hori ere.

## **2. HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN JARDUERA**

---

Zentroaren erreferentzia-ikuskeriak txosten bat idatzi beharko du gertakariaren gainean, eta ahalik eta informazio gehien bilduko du (lekuko-frogak eta guzti) espedientean sartzeko, balizko ekintza judizialearako. Halaber, alderdi administratiboarekin loturiko gomendioak ere egingo dira (profesionala beste zentro batera aldatzea egokia ote den balioestea, edo ikaslea aldatzea, eta abar). Hori guztia V. ERANSKINAREN (Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena) edukia jarraiki, kontuan izanik, bai zentroko zuzendaritzak bildutako informazioa, bai dagokion Lurralde Ordezkaritzak aurkez dezakeena, eta baita ikuskariak berak abiarazitako eginbideak ere.

Dagokionean, txosten horretan zehaztuko dira suntsiketek eta lapurretek eragindako kalte materialak eta Administrazioak edo haren langileek jasan duten ondare-kaltea, profesionalaren laneko bajaren ondorioz gertatutakoa barne. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aholkularitza Juridikoari igorriko zaio txostena, eta hark erabakiko du bidezkoa ote den Eusko Jaurlaritza kausan aurkeztea edo dagozkion lege-ekintzei ekitea, betiere langilea defendatzeko edo gertakizunen ondorioz jasan ahal izan dituen kalteak erreklamatzeko.

Halaber, dagokion lurralde-ordezkaritzak eskatzen badu, erreferentzia-ikuskeriak txosten bat idatziko du erasotako profesionalari laguntzeko neurri administratiboak hartzearen egokitasunari buruz.

Zentroko erreferentzia-ikuskeriak datu-basean sartuko du gertakaria, jarraipena eta kontrola erraztearren.

III. ERANSKINA on-line jasotzearen arduradunak erreferentzia-ikuskeriari helaraziko dio eranskin hori, eta erasotakoa lanean ari den zentroko zuzendaritzari bidaliko dio ikuskariak.

## **3. LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUAREN JARDUERA**

---

Erasotako profesionalentzat Laguntza Psikologikorako eta Jarraipenerako Plana egin eta kudeatuko du zerbitzu horrek. Halaber, aholkularitza emango die Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari eta Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari; lehenari Prestakuntza Plana egiteko garaian, eta bigarrenari, behar izanez gero, hartu beharreko neurri administratiboekin loturiko guztiari dagokionez.

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuko sendagileak gainbegiratuko du erasotakoaren erreku-perazio-prozesuaren bilakaera alta hartu bitartean, hark laneko baja hartu badu, eta txosten batean emango du bilakaera horren berri. Laneko baja hartzen ez den kasuetan, erasotuari jarraipena egingo zaio aldizka elkarrizketak eginda, eta elkarrizketa horiek abiapuntu hartuta txostena idatziko du; Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak txostena gordeko du, behar izanez gero, prozedura judizialean txertatze aldera.

Aldi baterako laneko ezintasuna gertatu edo ez, eta dagokion lurralde-ordezkariak eskatuta, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak txostena egingo du erasotako profesionalari laguntzeko neurri administratiboak hartzea egokia ote den argitzeko.

#### **4. HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARIAREN JARDUERA**

---

Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena jaso eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzura bideratuko du beharrezko informazioa.

Laguntza-eskaera (VI. ERANSKINA) jasoz gero, dagokion organora bideratuko du eskaera.

Zentroko zuzendaritzaren bitartez, juridikoak ez diren laguntza-neurri administratiboak ere eskatzen baditu erasotakoak, Hezkuntza Ikuskaritzatik eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzutik dagokion txostena eskuratuko du ebazpena emate aldera.

Profesionalak abokatu-asistentzia eskatzen badu (hori ere VI. ERANSKINean dago), lurralde-ordezkariak bideratuko du eskaera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Lege Aholkularitzara, eta horrek erabakiko du Jaurlaritzaren

#### **5. ERASOTZAILEAREKIKO HARTU BEHARREKO NEURRIAK**

---

Jasandako eraso motaren alde aurreko balioespena egin behar da: fisikoa, ahozkoa, eta abar, eta horren arabera erabakiko da jardunbidea. Jarraian, izan daitezkeen erasotzaile motak zerrendatuko ditugu, horien arabera erabakitzen baita zein urrats egingo den:

**a) Erasotzailea adingabea edo adin nagusikoa da, betiere ikastetxeko ikasle izanik:**

- Erasoa larritasunaren arabera diziplina-espedientea ireki ahal izango da eta, kasuan kasu, kautela-neurriak hartuko dira.
- 18 urte bitarteko ikaslea baldin bada, Adingabeen Fiskaltzan salaketa jartzeko aukera aztertuko da, edo adin nagusikoa izanez gero, Guardiako Epaitegian. Ertzaintzaren aurrean ere jar daiteke salaketa.

**b) Erasotzailea ikasle baten gurasoa edo senitartekoa nahiz bestelakoa da.** Salaketa jartzeari dagokionez, goian adierazitako urratsak egin behar dira. Nolanahi ere, OOGren deialdia egingo da, lehen esandakoari jarraiki.

**c) Erasotzailea beste irakasle bat da.** Kasu horretan, adierazitako urratsak alde batera utzita, irakasle erasotzaileari diziplina-espedientea ireki aurretik, egokia izan daiteke alde aurreko ezkutuko informazio-espedienteari hasiera ematea. Horrek ez du esan nahi erasotakoak dagokion jurisdikzio-organoaren aurrean salaketa jarri ezin duenik.

### **Kalte-galeren eskaera**

Gerta daiteke hezkuntza-administrazioarentzat kalteak edo galerak ere izatea. Baita legez kontrako beste egintza batzuk gertatzea ere, batera edo modu independentean. Kasu horretan, gertakari horien ondoriozko ekintza penalak eta zibilak egikaritzeko prozedurari ekin diezaioke Administrazioaren abokatuek, eragindako kalte-galerak erreklamatzearren.

Horrelakoetan, zentroko zuzendariak Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio gertatutako kalteen zerrenda, Administrazioaren abokatuek erreklamazioa egin dezaten, eta dagokion prozedurari ekindakoan, peritu judizialak tasazioa egin dezan.

Hari berari jarraiki, oso-oso garrantzitsua da zentroko zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari egiten dion txosten zehaztua (IV. ERANSKINA), txosten horretan azalduko denez zer gertatu den eta zein egoeratan, eta baita bil daitezkeen froga eta praktika frogagarri guztien aipamena.

**ERANSKINAK**

# I. ERANSKINA

## ERASO KASJETAKO JARDUERA PROTOKOLOAREN LABURPEN-TAULUA

URRATSAK	NORK	NORI / NORA	JARDUERA	OHARRAK
1. Eraso-egoera: laguntza eskatzea	Erasotako profesionalak	Gertakarien tokitik gertuko langileei	Sainhestea / Geldiaraztea	
2. Ertzaintzari jakinaraztea lehenbailehen (erasoak jarraitzen badu edo oso bortitza izan bada)	Zentroko langileek	Ertzaintzari	Geldiaraztea / Atestatua	
3. Medikuntza Anbulatorioaren Zerbitzura edo Larrialdietara joatea	Erasotako profesionalak (zentroko arduradun batekin batera)	Anbulatorioa edo Larrialdietara	Osasun-azterketa / Hala badagokio, lesio-partea	
4. Zuzendaritzari gertakariaren berri ematea ofizialki	Erasotako profesionalak	Ikastetxeko zuzendaritzari	Parte idatzia (III. ERANSKINA), aina gertatutakoa ahoz ere komunikatu daiteke, gertatu eta berehala	
5. Organo eskudunaren aurrean salaketa jartzea	Erasotako profesionalak/ Kasuan kasu, Zuzendaritzak eta/edo Hezkuntza diminstrazioak	Epaitegiari / Ertzaintzari	Salaketa jartzea erasoagatik / kalteengatik / eta abarregatik	
6. Laguntza psikologikoa eskaintzea	Zuzendaritzak	Erasotako profesionalari	Erasotako profesionalak laguntza psikologikoa eskatzen du (VI. ERANSKINA)	LAP Zerbitzuak Laguntza Psiko-logikorako eta Jarraipenerako Plana egin eta kudeatzen du
7. Aholkularitza juridikoa eskaintzea	Zuzendaritzak	Erasotako profesionalari	Erasotako profesionalak aholkularitza juridikoa eskatzen du (VI. ERANSKINA)	Lurralde Ordezkaritzaren eta/edo Sailaren Lege Aholkularitzak esku hartzen du
8. OOGren deialdia: erabakiak hartu eta neurriak ezartzea	Zuzendaritzak	OOGri	Erabakiak hartu eta neurriak ezartzea (Diziplina-espediente, komunikatua, etab.)	
9. Zentroko Zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari txostena igortzea	Zuzendaritzak	Hezkuntza Ikuskaritzari	Zuzendaritzaren txostena (IV. ERANSKINA), baina gertatutakoa ahoz ere komunikatu daiteke, gertatu eta berehala	Hezkuntza Ikuskaritzak eta Lurralde Ordezkaritzak esku hartzen dute
10. Erasotako profesionalari laguntzeko neurri administrazioak	Zuzendaritzak (erasotako profesionalak eskatuta)	Lurralde Ordezkaritzara	Neurri administrazioak eskatzeko idatzia (VI. ERANSKINA), erasotakoaren lanbide-jardueraren normalizatzeke	Lurralde Ordezkaritzak, Hezkuntza Ikuskaritzak eta LAP Zerbitzuak esku hartzen dute

### 1. IKASTETXEAREN JARDUERAK

Borondatezko jarduerak

## 2. HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN JARDUERA

### JARDUERA

- Jarraipen eta kontrolerako datu-basean erasoa erregistratzea.
- Prozesuari buruzko aholkularitza edo aholkularitza administratiboa ematea erasotakoari eta zentroko zuzendaritzari.
- Izapideak egitea, dokumentazioa eta lekukotasunak bilitzea, eta abar.
- Ikuskaritzaren txostena egitea (V. ERANSKINA).
- Dagokionean, erasotako profesionalari laguntzeko neurri administratiboak hartzearen egokitasunaren inguruko txostena egitea.
- III. ERANSKINA on-line jasotzearen arduradunak erreferentzia-ikuskaritari helaraziko dio eranskin hori, eta erasotakoa lanean ari den zentroko zuzendaritzari bidaliko dio ikuskatzaileak.

## 3. LANeko ARRISKUAK PREBENITZeko ZERBITZUAREN JARDUERA


### JARDUERA

- Laguntza psikologikoa eskatu bada:  
Laguntza Psikologikorako eta Jarraipenerako Plana egitea, eta txostena idaztea.
- Erasoaren ondorioz laneko baja hartu bada:  
Erasotakoaren errekerperazio-prozesua gainbegiratu eta txostena idaztea.
- Laneko bajarik hartu ez bada:  
Jarraipena egitea aldizka elkarriketak eginda, eta txostena idaztea.
- Dagokion lurralde-ordezkaritzak eskatuta:  
Erasotako profesionalari laguntzeko neurri administratiboak hartzearen egokitasunaren inguruko txostena egitea.


## 4. LURRALDE ORDEZKARIAREN JARDUERA

### JARDUERA

- Ikuskaritzaren txostena jasotzea (V. ERANSKINA):  
Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuari komunikatzea eta informazioa bideratzea.
- Laguntza psikologikorako eskaera jaso bada:  
Laneko Arriskuak Prebenitzeko (LAP) Zerbitzura eskaera bideratzea.
- Aholkularitza eta/edo abokatu-asistentziaren eskaera jaso bada:  
Hezkuntza Sailaren Lege Aholkularitzara eskaera bideratzea.
- Erasotakoari laguntzeko neurri administratiboen eskaera jaso bada:  
Horren gaineko ebazpena, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta LAP Zerbitzuaren txostena jaso ostean.







### IKASTETXEARI BURUZKO DATUAK

---

Ikastetxea: ..... Kodea: .....

Herria: ..... Lurraldea: .....

### ERASOTAKO PROFESIONALAREN DATU PERTSONALAK

---

Abizenak: ..... Izena: .....

Jaioteguna: ..... NAN: ..... Sexua: .....

### GERTATUTAKOA<sup>1</sup>

---

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

<sup>1</sup> Gertakariak ahalik eta modu zehatzenean deskribatu behar dira, interesdunak interesgarri irizitako guztia barnean hartuta, betiere kasuarekin loturik.

**OHARRAK ETA ERASOEN AURREKARIAK (baldin badaude):**

---

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Kasu honetan eraso-kasuetako Jarduera Protokoloa  
aplika daitekeela uste dut.

BAI

EZ

....., 200\_\_(e)ko .....ren .....a.

Izpta.: .....

**IKASTETXEARI BURUZKO DATUAK**

Ikastetxea: ..... Kodea: .....

Herria: ..... Lurraldea: .....

**ERASOTAKO PROFESIONALAREN DATU PERTSONALAK**

Abizenak: ..... Izena: .....

Jaioteguna: ..... NAN: ..... Sexua: .....

Ikastetxean betetzen duen eginkizuna: .....

Egoera administratiboa<sup>2</sup>: .....

**ERASOAK NON ETA NOIZ GERTATU DIREN**

- Ikasgela
- Jolastokian
- Korridoreetan
- Ikastetxeko sarrera-irteeretan
- Ikastetxetik kanpo, ikastetxeko ikasleen eskutik
- Ikastetxetik kanpo, kanpoko norbaiten eskutik
- Besterik.....

DATA


**GERTAKARIAN PARTE HARTU DUTENAK**

**Zentroko langileak**

- Ikasleak: .....

- Irakasleak: .....

- Irakasle ez diren langileak: .....

- Beste batzuk: .....

<sup>2</sup> Karrerako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioa, langilea, kontratatutako langilea, bestelakoa (zehaztu).

## Lekukoak

---

- Ikasleak: .....
- Irakasleak: .....
- Irakasle ez diren langileak: .....
- Beste batzuk: .....

## Ustezko erasotzaileak

---

- Ikasleak: .....
- Irakasleak: .....
- Irakasle ez diren langileak: .....
- Beste batzuk: .....

## ERASO MOTA

---

- |                          |                              |                             |
|--------------------------|------------------------------|-----------------------------|
| 1 Hitzeko erasoak        | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| 2 Eraso fisiko zuzenak   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| 3 Beste batzuk (zehaztu) | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |

## ESKOLA EREMUAREN BARRUAN HARTUTAKO NEURRIAK

---

Diziplina-espeditzea. BAI  EZ

Kautela-neurriak diziplina-espeditzean. BAI  EZ

Baiezkoa erantzunez gero, adierazi honako hauek:

Hasiera-data: .....

Ikaslearen datuak .....

Instruktorearen izen-abizenak: .....

## BESTELAKO NEURRIAK

Poliziak esku hartu al du?

BAI

EZ

Dagokionean:

Ertzaintza.

Udaltzaingoa.

Bestelakoak (zehaztu).

Gertakaria salatu al da?

BAI

EZ

Poliziaren atestaturik egin al da?

BAI

EZ

Zergatik?: .....

.....

.....

Aldez aurreko izapideak bideratu al dira?

BAI

EZ

Oraingoz ez.....

Dagokionean:

Epaitegiaren zkia.: .....

Aldez aurreko eginbideen zkia.: .....

Lesiorik izan al da?

BAI

EZ

Osasun-zentroren batean aztertu al dute?

BAI

EZ

Ba al da lesio-parterik?

BAI

EZ

Ordezkaritzari jakinarazi al zaio?

BAI

EZ

Laneko istripuak eragindako aldi baterako lanerako ezintasuna bideratu al da?

BAI

EZ

Gertakari horren ondorioak: .....

.....

.....

.....

.....

Ikastetxeko OOGak parte hartu al du?

BAI

EZ

Parte hartu badu, OOGaren aktak aurkeztu behar dira.

Gertakariak gaitzetsi ditu .....

Erasotzaileei ikastetxean sartzeari debekatu die .....

Zuzendaritzari eskatu dio gertakariak salatzen .....

(Bestelakoak, zehaztu).....

### GERTATUTAKOA<sup>3</sup>

---

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### OHARRAK ETA ERASOEN AURREKARIAK (baldin badaude)

---

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Kasu honetan eraso-kasuetako Jarduera Protokoloa  
aplika daitekeela uste dut.

BAI

EZ

....., 200\_\_(e)ko .....ren .....a.

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Izpta.: .....

OHARRA: Erantsi dokumentazio guztia: Abiarazitako eginbideak, lesio-partea, Hezkuntza Administrazioarekin lotura duten eta ez duten balizko lekukoaren zerrenda...

---

<sup>3</sup> Gertakariak ahalik eta modu zehatzenean deskribatu behar dira, interesdunak interesgarri iritzitako guztia barnean hartuta, betiere kasuarekin loturik.

Ikustaria: .....

Zona: .....

Lurraldea: .....

Ikuskaritza honek gertakarien berri izan du honako honen bidez<sup>4</sup> ..... ,  
beraz, ikastetxeko profesional bati egindako ustezko erasoari dagokionez, behean sinatzen duen  
ikuskatzaileak honako hau

## JAKINARAZTEN DU

### 1. Identifikazio-datuak:

#### IKASTETXEARI BURUZKO DATUAK

Ikastetxea: ..... Kodea: .....

Herria: ..... Lurraldea: .....

#### ERASOTAKO PROFESIONALAREN DATU PERTSONALAK

Abizenak: ..... Izena: .....

Jaioteguna: ..... NAN: ..... Sexua: .....

Ikastetxean betetzen duen eginkizuna<sup>5</sup>: .....Egoera administratiboa<sup>6</sup>: .....

### 2. Eraso-kasuarekin loturik, txosten hau idazteko egunean jasotako dokumentazioaren zerrenda:

III. eranskina. Erasotako profesionalaren partea

IV. eranskina. Zentroko zuzendaritzaren txostena

.....  
.....  
.....  
.....

DATA

X	
X	

<sup>4</sup> Gertakarien berri izateko modua adierazi behar da: Zuzendaritzaren txostena, erasotakoarena, eta abar.

<sup>5</sup> Zuzendaritza Taldeko kidea, bestelako irakaslea, irakasle ez den langilea, bestelakoa (zehaztu).

<sup>6</sup> Karrerako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioa, langilea, kontratatutako langilea, bestelakoa (zehaztu).





Goian adierazitako azterketa eta balioespena aintzat hartuta, eta deskribaturiko erasoak eragindako egoera ikusita, behean sinatzen duen ikuskatzaileak honako hau

**IRITZI DIO:**

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzura igorri behar dela kasua, jarraipena egite aldera	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Hezkuntza Sailaren Aholkularitza Juridikora igorri behar dela kasua, aurreragoko ekintza judizialetan Administrazioak parte moduan aurkeztu behar ote duen erabaki dezan	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Erasotako irakaslea ikastetxez aldatzeko aukera balioestea.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Langileak jasandako erasoak egin dituen ikaslea ikastetxez aldatzeko aukera balioestea.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Besterik (zehaztu).....	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

....., 200\_\_(e)ko .....ren .....a.

Ikustaria

Izpta.: .....

.....jaunak/andreak, irakaslea, .....  
lurraldeko .....herriko .....  
.....kastetxeko langileak  
.....(e)an izenpeturiko Erasotako Profesionalaren Partean jasotzen denaren ara-  
bera (partearen kopia erantsi da),

honako hau **ESKATZEN DIO** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari:

Laguntza psikologikoa	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Aholkularitza juridikoa	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Abokatu-asistentzia (soilik alde aurretik salaketa jarria badago) <sup>8</sup>	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Neurri administratiboak (beste lanpostu batera aldatzea)	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Beste neurri batzuk (zehaztu)	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

....., 200\_\_(e)ko .....ren .....a.

Izpta.: .....

.....ko HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARIA

<sup>8</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiari abokatu-asistentzia eskatzen zaion kasuan, asistentzia hori Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Auzibide Zuzendaritzaren abokatuak emango dute.

Jarraian, Zigor Kodearen artikuluen aukeratze bat eskaintzen dugu, ikastetxeetako langileen-ganako eraso-kasuekin lotura handiena duten alderdiak azaltzeko.

Xedapen orokorrak

**24. artikulua. [«Agintari» eta «funtzionario» kontzeptuak]**

1. Zigor-ondoreetarako, agintaritzat hartuko da, bera bakarrik edo korporazio, auzitegi nahiz kide anitzeko organo baten kide gisa agintea izan edo berezko jurisdikzioan jarduten duena. Edozein modutan, Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Autonomia Erkidegoetako legebiltzarretako eta Europako Parlamentuko kideak agintaritzat hartuko dira. Fiskaltzaren kideak ere agintaritzat hartuko dira.
2. Funtzionario publikotzat hartuko da, legearen zuzeneko xedapenaren bidez, hautaketa bidez edo agintaritzat eskudunak erantzuleei dagozkien kuotengatik, berriz, modu subsidiarioan.

Erantzukizun zibila duten pertsonak

**116. artikulua. [Kasu orokorrak]**

1. Delitu edo faltarengatik erantzukizun kriminala duen pertsona orok erantzukizun zibila ere badu izan, baldin eta egitateak kalte edo galerak ekartzen baditu. Delitu edo faltaren ondorioz erantzuleak bi edo gehiago badira, epaile edo auzitegiek ezarriko dute bakoitzari dagokion erantzukizun-kuota.
2. Egile eta sopikunek, norik bere motakoen barnean, euren kuotengatik era solidarioan erantzungo dute, eta gainerako erantzuleei dagozkien kuotengatik, berriz, modu subsidiarioan.

Erantzukizun subsidiarioa ordainduko da, Lehenengoz egileen ondasunen bidez, eta gero sopikunen ondasunen bidez.

Erantzukizun solidario nahiz subsidiarioaren bidez ordaintzen den kasuetan, ordaindu duenak berreskaera-eskubidea izango du gainerakoen aurka, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

Lesioak

**147. artikulua. [Lesio-delitua. Lesio-kontzeptua]**

1. Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati lesioa eragiten badio, gorputz-osotasunean, osasun fisikoan edo buru-osotasunean kalte eginez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, lesio-delituaren errudun gisa, baldin eta lesio hori objektiboki sendatzeko, medikuntza-sendabidea edo sendabide kirurgikoa behar badu, adituen lehenengo laguntzaz gain. Adituak lesioaren inguruan egiten duen zaintza edo jarraipen hutsa ez da medikuntza-sendabidetzat hartuko.
2. Dena den, aurreko paragrafoan azaldutako egitatea zazpi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldiarekin edo hiru hilabetetik hamabi arteko isunarekin zigortuko da, baldin eta larritasun txikiagokoa bada, erabilitako bidea edo sorturiko emaitza kontuan izanik.

Mehatxuak

**169. artikulua. [Norbaiti mehatxu egitea delitu den gaiztakeria batekin]**

Norbaitek beste bati mehatxu egiten badio, berari, beraren familiari edo berari estu loturik dauden beste pertsona batzuei kalte egingo diela, eta kalte hori bada giza hilketa, lesio edo abortu delitua, askatasunaren aurkako delitua, tortura-delitua nahiz osotasun moralaren, sexu-askatasunaren, bizitza pribatuaren, ohorearen, ondarearen, eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delitua, orduan, mehatxatzaileari zigor hauek ezarriko zaizkio:

1. Urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra, baldin eta, bere helburua lortu duelarik, mehatxua ez betetzeko kopuru bat galdatu badu edo beste edozein baldintza ezarri badu, baldintza zilegia bada ere. Helburua lortu ez duenean, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Aurreko paragrafoaren zigorrak goiko erdian ezarriko dira, baldin eta mehatxuak idatziz, telefonoz edo komunikatzeko nahiz kopiatzeko bideetatik edozein erabiliz, edo egiazko zein ustezko erakunde edo taldeen izenean egiten badira.

2. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra, mehatxua baldintzapekoa izan ez bada.

Derrigortzeak

**172. artikulua. [Kasuak]**

Norbaitek, bidezko baimenik gabe, beste bati, indarkeriaren bidez, legeak debekatzen ez duena egitea eragozten badio edo egin nahi ez duena egitera behartzen badu, zuzena izan zein ez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, derrigortzearen edo erabilitako bideen larritasunaren arabera.

Egindako derrigortzea oinarritzeko eskubide baten egikaritza eragoztean datzanean, orduan, zigorrak goiko erdian ezarriko dira, salbu eta egitateak zigor handiagoa duenean kode honen beste manu batean.

Kalumnia

**205. artikulua. [Kasua]**

Kalumnia dago pertsona batek beste bati delitu bat egozten dionean faltsua dela jakinda edota egia ausartegi mesprextuz.

## **206. artikulua. [Publizitatearen bidez]**

Kalumniak sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorrekin edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isunarekin zigortuko dira, publizitatearen bidez zabaltzen badira eta, bestela, lau hilabetetik hamar arteko isunarekin.

## **207. artikulua. [Egitate kriminalaren frogia]**

Kalumnia-delitupeko akusatua zigoretik salbuetsita geratuko da, egotzi duen egitate kriminala frogatzen badu.

### **Iraina**

## **208. artikulua. [Kasua]**

Iraina da beste pertsona baten duintasuna hausten duen ekintza edo adierazpena, pertsona horren ospeari kalte egiten diona edo beraren estimazioaren aurka atentatu egiten duena.

Irainak delitu izango dira, bakar-bakarrik, euren izaera, ondore eta inguruabarren arabera jendeak larritzat hartzen dituenen.

Irainak ez dira larritzat hartuko egitateak egozte hutsak badira, irainok egitateen faltsutasuna jakinda edota egia ausartegi mespretxatuz gauzatu direnean izan ezik.

## **209. artikulua. [Publizitatearen bidez]**

Irain larriak sei hilabetetik hamalau arteko isunarekin zigortuko dira, publizitatearen bidez egiten badira, eta, bestela, hiru hilabetetik zazpi artekoarekin.

## **210. artikulua. [Egozpenak egiazkoak diren frogia]**

Irainaren ondoriozko akusatua erantzukizunetik salbuetsita geratuko da, egozpenak egiazkoak direla frogatzen bada, egozpenok funtzionario publikoen aurkakoak diren kasuetan, betiere, funtzionarioek euren karguetan aritzearekin zerikusia duten egitateei buruzkoak edo zigor-zuzenbideko falta edo administrazioko arau-haustea egiteari buruzkoak direnean.

### **Kalteak**

## **263. artikulua. [Kasua]**

Norbaitek beste baten jabetzari eragiten badizkio kode honen beste titulu batzuetara bilduta ez dauden kalteak, orduan, horri sei hilabetetik hogeita lau arteko isun-zigorra ezarriko zaio, biktimaren egoera ekonomikoa eta kaltearen zenbatekoa kontuan harturik, azken hori berrogeita hamar mila pezetakoa baino handiagoa bada.

### **Akusazio eta salaketa faltsuak, eta delituen itxura egitea**

## **456. artikulua.**

1. Norbaitzuek pertsona bati egitate faltsuak egozten badizkiote, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, eta egitateok, egiazkoak izanez gero, arau-hauste penal izango liratekeen horietakoak badira, eta egozpen hori egiten bada egitateok ikertzeko betebeharra duen funtzionario judizialaren edo administrazioko funtzionarioaren aurrean, orduan, zigor hauek ezarriko zaizkie harakoei:

1. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, delitu astuna egozten badute.
2. Hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna; astuntasun txikiagoko delitua egozten badute.
3. Hiru hilabetetik sei arteko isuna, falta bat egozten badute.

2. Salatzaile edo akusatzailearen aurka joateko, egotzitako arau-haustearen eskumena izan duen epaile edo auzitegiak epai irmoa eman behar du edo, bestela, largespen edo artxibatze auto irmoa. Epaile edo auzitegiok ofizioz aginduko dute salatzaile edo akusatzailearen aurka jarduteko, auzi nagusiak nahikoa zantzu ondorioztatzen baditu egozpenaren faltsutasunari buruz; horrek ez dio kalterik egingo egitatea pertsegitu ahal izateari ofendituak egiten duen salaketaren bidez.

## **457. artikulua.**

Norbaitek, aurreko artikuluan adierazitako funtzionarioetatik baten aurrean, arau-hauste penal baten ondorioz erantzule edo biktima dela itxura egiten badu, edota gertatu gabeko arau-hauste penalari buruzko salaketa egiten badu, eta prozesuko jarduna sortarazten badu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

### **Agintaritzaren aurkako atentatuak, agintaritzaren agenteen eta funtzionario publikoen aurkako atentatuak, eta jarkitzea eta desobeditzea**

## **550. artikulua. [Kasua]**

Atentatupeko erruztatuak dira agintariari, agintaritzaren agentei edo funtzionario publikoei, euren karguetako funtzioetan ari direnean edo eginkizun horiek direla-eta jazartzen zaizkienak, horien aurka indarra erabiltzen dutenak, horiek modu larrian larderiatzen dituztenak edo horiei modu aktibo eta larrian jarkitzen zaizkienak.

## **551. artikulua. [Zigorrak]**

1. Aurreko artikuluko atentatuak agintaritzaren aurka badira, bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorrekin eta hiru hilabetetik sei arteko isunarekin zigortuko dira, eta beste kasu guztietan urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

## Pertsonen aurkako faltak

### 617. artikulua.

1. Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabilia, kode honetan delitu gisa zehaztuta ez dagoen lesio bat eragiten badio inori, orduan, horri sei egunetik 12 arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaio.
2. Norbaitek beste bat jotzen badu edo egitez hari tratu txarra ematen badio, lesiorik eragin gabe, bi egunetik sei arteko atzipenaldi-zigorra edo 10 egunetik 30 arteko isuna ezarriko zaio.

617. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita bederatzigarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

### 618. artikulua.

1. Sei egunetik hamabi arteko atzipenaldi-zigorra edo hamabi egunetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie, bertan behera utzitako adingabe edo ezgai bat aurkitu eta agintaritzaren edota adingabe zein ezgaiaren familiaren aurrean aurkezten ez dutenei edo, behar izanez gero, inguruabarren araberrako laguntzarik ematen ez diotenei.
2. Delitu izan gabe, norbaitek familia-betebeharrak betetzeari uzten badio, eta betebeharrak horiek onespenez judiziala duen hitzarmenaren bidez edo epaile-ebazpenaren bidez ezarri badira, legezko banantzean, dibortzioan, ezkontzaren deuseztasunari buruzko adierazpenean, seme-alabatasunari buruzko prozesuan edo seme-alabentzako mantenu prozesuko kasuan, orduan, pertsona horri 10 egunetik bi hilabete arteko isuna ezarriko zaio edo bestela, gizartearentzat lan egiteko zigorra egun batetik 30 arte.

618. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamargarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

### 620. artikulua.

Hamar egunetik hogeita arteko isun-zigorra ezarriko zaie hurrengo hauei:

1. Era arinean, beste bati mehatxua egiten diotenei, armak edo bestelako tresna arriskutsuak erabiliz, edota horiek liskarrean ateratzen dituztenei, defentsa zuzena dagoenean izan ezik, salbu eta egitatea delitua denean.
2. Beste bati mehatxua, derrigortzea, zuzena ez den iraina edo iseka egiten diotenei, horiek guztiak izaera arinekoak badira.

Aurreko zenbaki bietan adierazitako egitateak jazartzeko, beharrezkoa izango da laidotutako pertsonaren edo beraren lege-ordezkararen salaketa.

Artikulu honen 2. zenbakiko kasuetan, ofenditua 173.2. artikulua aipatzen dituen pertsonetatik bat denean, lau egunetik zortzi arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko da, betiere biktimaren etxea ez den beste batean eta handik urrun, edo bestela, gizartearentzat lan egiteko zigorra bost egunetik 10 arte. Kasu horietan, ez da beharrezkoa izango artikulua honen aurreko lerrokadak aipatzen duen salaketa, irainak pertsegitzeko izan ezik.

620. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamaikagarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

### 621. artikulua.

1. Norbaitzuek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, 147. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako lesioetatik bat eragiten badute, hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.
2. Norbaitzuek, zuhurtziagabekeria arinaren ondorioz, beste baten heriotza eragiten badute, hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.
3. Norbaitzuek, zuhurtziagabekeria arinaren ondorioz, delitu den lesioa eragiten badute, 10 egunetik 30 arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

621. artikulua 3. zenbakia honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamabigarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

4. Horrez gain, egitatea ibilgailu motordun edo motor-bizikleta erabiliz gauzatzen bada, kasuan-kasuan, horiek gidatzeko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarri ahal izango da hiru hilabetetik urtebete arteko denboran.

621. artikulua 4. zenbakia honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamabigarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

5. Horrez gain, egitatea arma erabiliz gauzatzen bada, armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarri ahal izango da, hiru hilabetetik urtebete arteko denboran.
6. Artikulu honek zigortzen dituen arau-hausteak pertsegitzeko beharrezkoa izango da laidotuaren edo beraren lege-ordezkararen salaketa.

### **622. artikulua.**

Adingabe baten gurasoek, familia-harremanen aurkako delitua edo, hala dagokionean, desobeditze-delitua egin barik, epaile edo auzitegiak ezarritako adingabeen zaintza-erregimena urratzen badute, orduan, hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

622. artikulua honako honetan idatzi zen: adingabeak gurasoen eskumenetik ateratzeari buruzko Kode Zibilaren eta Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 10eko 9/2002 Lege Organikoaren laugarren artikuluan (abenduaren 11ko BOE).

Indarraldia: 2002ko abenduaren 12an

## **Ondarearen aurkako faltak**

### **623. artikulua.**

Hurrengo hauei lau egunetik hamabi arteko atzipenaldia edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaie:

1. Ebasketa egin dutenei, baldin eta ebatsitakoaren balioa 400 euro baino gehiagokoa ez bada.
2. Bestalde, 236. artikuluan azaldutako jokabidea dutenei, betiere gauzaren balioa 400 euro baino gehiagokoa ez denean.
3. Beste baten ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta osten dutenei, horiez jabetzeko asmorik gabe, baldin eta erabilitako ibilgailuaren balioa 400 euro baino gehiagokoa ez bada.

Egitatea gauzetan indarra erabiliz gauzatzen bada, zigorra goiko erdian ezarriko da. Egitatea pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz gauzatzen bada, 244. artikuluan ezarritakoaren arabera zigortuko da.

4. Maula edo bidegabeko jabetzea egiten dutenei edota elektrizitatean, gasean, uretan zein bestelako osagai, energia nahiz jariakinetan edo telekomunikazio-ekipo terminaletan iruzur egiten dutenei, horren zenbatekoa ez bada 400 euro baino gehiagokoa.

623. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamahirugarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

### **625. artikulua.**

1. Bi egunetik hamabi arteko atzipenaldi-zigorra edo 10 egunetik 20 arteko isuna ezarriko zaie kalteak nahita egiten dituztenei, kalteen zenbatekoa ez bada 400 euro baino gehiagokoa.
2. Zigorra goiko erdian ezarriko da, Kode honen 323. artikuluan adierazitako tokietan edo ondasunetan eragiten badira kalteak.

625. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamabosgarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

### **626. artikulua.**

Norbaitzuek histen badituzte jabari publiko edo pribatuko ondasun higiezinak, Administrazioaren edo ondasunon jabeen behar bezalako baimenik izan gabe, orduan, halakoei bi egunetik sei arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko zaie, edo bestela, gizartearentzat lan egiteko zigorra hiru egunetik bederatzirarte arte.

626. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta hirurogeita hamaseigarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

## **Interes orokorren aurkako faltak**

### **630. artikulua.**

Norbaitzuek xiringak, edozein kasutan, edo bestelako tresna arriskutsuak uzten badituzte, pertsonen kalte eragin ahal diren edo pertsonak gaixotasunez kutsatu ahal dituzten modu eta inguruabarretan, edo adingabeak sarritan joaten diren tokietan, orduan, halakoei sei egunetik 10 arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaie.

630 artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta laurogeigarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

## **Ordina publikoaren aurkako faltak**

### **633. artikulua.**

Norbaitzuek, era arinean, ordenaren nahasmendua eragiten badute auzitegi edo epaitegi baten entzunaldian, jendaurreko ekitaldietan, kirol- nahiz kultura-ikusketan, ospakizun edo bilera jendetsuetan, orduan, halakoei bi egunetik 12 arteko atzipenaldi-zigorra edo 10 egunetik 30 arteko isuna ezarriko zaizkie.

633. artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta laurogeita hirugarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

**634. artikulua.**

Norbaitzuek, agintaritzza bera edo agintaritzaren agenteak euren funtzioetan ari direla, horiei zor zaien errespetu eta begirunea galtzen edo era arinean desobeditzen badiete, orduan, halakoei hamar egunetik hirurogei arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

**635. artikulua.**

Bi egunetik 10 arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaie pertsona juridiko publiko edo pribatuaren egoitzan, lanbide-idazgelan zein bulegoan edota jendaurrean zabalik dagoen merkataritzako establezimenduan zein lokalean, beraren titularraren borondatearen aurka, eta irekita dagoen orduetatik kanpo, bertan dirautenei.

635 artikulua honako honetan idatzi zen: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren artikulua bakarreko ehun eta laurogeita laugarren atalean (azaroaren 26ko BOE).

Indarraldia: 2004ko urriaren 1a

## Falta guztietarako xedapenak

**638. artikulua.**

Epaille eta auzitegiak, liburu honen zigorrak ezartzean, kode honen 61. artikulutik 72.era koetan jasotako erregelen arabera jokatu barik arituko dira, euren sen onaren arabera, zigor bakoitzari ezarritako mugen barnean, eta kasuaren eta errudunaren inguruabarrak kontuan hartuz.

**639. artikulua.**

Laidotuak hala eskatu barik pertsegitu ezin daitezkeen faltetan, Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du, baldin eta laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean.

Salaketarik egin ez bada ere, ez da eragotziko aurreneurriak hartzeko eginbideak egitea.

Falta horietan, ofendituaren edo beraren lege-ordezkararen barkamenak akzio penala edo ezarritako zigorra azkenduko du, 130. artikuluko 4. zenbakiaren bigarren lerrokadan xedatutakoa izan ezik.

---

Horretaz gain, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren (urtarrilaren 13ko BOEa) 61.3. artikuluan honako hau xedatzen da:

---

## Erantzukizun zibilari buruz

**61. artikulua.- Arau orokorrak.**

3. Gertatutako egintzen erantzulea hemezortzi urtetik beherako adingabea denean, eragindako kalte-galeren arduradun izango dira, adingabearekin batera, haren gurasoak, tutoreak, hartzailleak eta legezko edo izatezko zaindaria, ordena horri jarraiki. Adingabearen jokabidearen alde egin ez badute dolu edo zabarkeria larri, haien erantzukizuna arindu dezake Epailleak, kasuan kasu.